

EXCERPTA

12. zenbakia

1987-maiatza

gaiak

orrialdeak

-----	-----
Hesiodo:Teogonia.....	289-292
Katulo.....	293-294
Martzial.....	295-298
Boezio.....	299-301
Eugenio Santua.....	302-307
Sulpicius Verulanus.....	308-309
Definitiones,etymologiae,explicationes e Sancti Augustini scriptis depromptae.	310-312

Grezia-ko Mitologia

(barne-orrietako eranskina)

latin-grekozko idazleen
itzulpen-ikerketa lanak

Jon Gotzon Etxebarria

Gernika

OLINPO

Grezia-ko mendirik handiena(2.985 m.),Mazedonia-Tesalia-ren arteko mugan kokatua.Urteko zatirik handiengan gailurra elurrez estalia egotenda.Mendi basati eta harkaitzua,badirudi igoezina dela.Grekoentzat Olinpo mendia Zeus-en eta jainko nagusien egoitza zen.

Antxinatean inork ez zuen inoiz mendi-gaina zapa ldu;geroago,bai,baina oso gitxitan.

Olinpo-rainoko lehenengo igoaldia talde holandar batek egin zuen,1955. urteko Uztailaren 28 eta 29an,hain zuzen ere.

("Enciclopedia de la Mitología";Afrodisio Aguado S.A.;Madrid,1967)



HESIODO-ren

TEOGONIA

- 9 Ἐνθεν ἀπορνύμεναι, κεκαλυμμένοι ἤέρι πολλῇ,
ἐννύχαι στείχον περικαλλέα ὄσσαν ἰεῖσαι,
ὕμνευσαι Δία τ' αἰγίοχον καὶ πότνιαν Ἥρην
Ἄργεῖην, χρυσοῖσι πεδλοῖς ἐμβεβαυῖαν,
κούρην τ' αἰγίοχοιο Διδὸς γλαυκῶπιν Ἀθήνην
Φοῖβόν τ' Ἀπόλλωνα καὶ Ἄρτεμιν ἰοχέαιραν
ἠδὲ Ποσειδάωνα γαίηοχον, ἐννοσίγαιον,
καὶ Θέμιν αἰδοῖην ἐλικοβλέφαρόν τ' Ἀφροδίτην
Ἥβην τε χρυσοστέφανον καλήν τε Διώνην
Λητώ τ' Ἰαπετόν τε ἰδὲ Κρόνον ἀγκυλομήτην
Ἥῶ τ' Ἥελιόν τε μέγαν λαμπρᾶν τε Σελήνην
Γαῖάν τ' Ὠκεανόν τε μέγαν καὶ Νύκτα μέλαιναν
ἄλλων τ' ἀθανάτων ἱερὸν γένος αἰὲν ἐόντων.

HERA: Kronos eta Rea-ren alaba, grekoen jainkosarik nagusia.

ARTEMIS: Zeus eta Leto-ren alaba, ehizaren jainkosa.

POSEIDON: ur-itsasoen jainkoa.

TEMIS: Zuzentasuna adierazten zuen jainkosa.

HEBE: Zeus eta Hera-ren alaba, gaztetasunaren jainkosa; erromatarrentzat Juvencia zen.

DIONE: Zeus-en maitaletariko bat.

- 9 Handik alde egiten zuten, laino loditan estaliak; gauean babesturik bide egiten zuten, ahots ederra zabalduz, Zeus ezkutaduna eta Hera agurgarria, Argostarra, urrezko oskiak jantzia, goretsiz; Zeus ezkutadunaren alaba, Atenea begiargia; Febo Apolo eta Artemis gezi-jaurtitzaillea; eta Poseidon lurra besarkatu eta astintzen duena;
- 16 Temis gurgarria, bekain kakodun Afrodita; Hebe urrezko koroeduna, Dione ederra; Leto, Iapeto eta Kronos maltzurra; Goizaldea, Eguzki handia eta I largi distiratsua; Lurra, Ozeano zabala eta Gau beltza; eta baita betikoak diren beste hilezko-21 rren senitarte sakratua ere goretsiz.

LETO: Zeos errealdoiaren eta Febe-ren alaba.

JAPETO: errealdoi edo digantea, Atlas, Menezio, Prometeo eta Epimeteo-ren aita.

KRONOS: Aldiaren idurikapena, grekoen artean; batzutan agurekaten itxuraz agertzen da.


(jarraitzeko)

KATULO

Agur, sur txiki, oin polit, begi
beltz, hatzamar luze, aho
egoki, mihi hain dotorerik
ez duzun neska, Formiano
esku urratu honen laguna.
Ederra probintziarako?
Zurekin gure Lesbia aldera?
Hau mende ezjakin, gatzbako!

XLIII

Salve, nec minimo puella naso
nec bello pede nec nigris ocellis
nec longis digitis nec ore siccio
nec sane simis elegante lingua,
decoctoris amica Formiani:
ten provincia narrat esse bellam?
tecum Lesbia nostra comparatur?
o saeculum insapiens et infacetum!



*Olimpo mendia.

LIV

Othonis caput oppidost pusillum,
 Herei rustica semilauta crura,
 subtile et leue peditum Libonis,
 si nom omnia, displicere uellem
 tibi et Sufficio, seni recocto.
 irascere iterum meis iambis
 inmerentibus, unice imperator.

Oton-en burua txikia da guztiz,
 Herei-ren iztarrak, latz, garbiak erdiz,
 Libon-en uzkerra mehe eta arina.
 Den-denek ez bada, hauetxek iguina
 emango dizute zuri, baita agure
 berregositako Sufizio-ri ere?
 Berriro haserre nere yanboekin,
 hutsalak dituzu, agintari bikain!

*Azkenean aipatzen duen Zesar-i zuzendutako
 olerkia. Haren lagun maminen akatsak argitza
 ratuz zirikatatu nahi du.*

MARTZIAL

Quaedam me cupit – inuide, Procille! –
 loto candidior puella cycno,
 argento, niue, lilio, ligustro:
 sed quendam uolo nocte nigriorem,
 formica, pice, graculo, cicada.
 lam suspendia saeua cogitabas:
 si noui bene te, Procille, uiues.

(I, 115)

Neska bat, Prozilo bekaiztia, kisne
 zuri, zilar, elur, lili, xuandor-hautsa
 baino zuriago, nire irrikaz dabil.
 Nik, aldiz, beste bat gurago dut, beltza,
 bike, inurri, bele, gau, txitxar-aldean
 are beltzagoa; urkamendi latza
 darabilzu hausnar, Prozilo; zu ongi
 ezagun bazaitut, gozatu bizitza!

Omnes aut uetulas habes amicas
 aut turpes uetulisque foediores.
 Has ducis comites trahisque tecum
 per conuiuia, porticus, theatra.
 Sic formosa, Fabulla, sic puella es.

(VIII, 79)

Zure lagunak denak zaharrak
 edo zatar ta motzago
 zaharrak eurak baino. Zurekin
 hara ta hona, lagungo
 gisa, eroan ohi dituzu,
 jatera, aterpe, teatro
 denetan zehar. Fabula hola
 da ederra ta neskato!

Bella es, nouimus, et puella, uerum est,
 et diues, quis enim potest negare?
 Sed cum te nimium, Fabulla, laudas,
 nec diues neque bella nec puella es.

(I, 74)

Ederra zara bai, neskatila,
 eta, nork uka?, aberatsa.
 Baina, Fabula, larregi zure
 buruaz mintza ta mintza
 ez aberatsa zara orduan,
 ez ederra, ez neskatxa.

Uxorem quare locupletem ducere nolim
 quaeritis? Uxori nubere nolo meae.
 Inferior matrona suo sit, Prisce, marito:
 non aliter fiunt femina uirque pares.

(VIII, 13)

Zergatik ez dudan nahi andra aberatsarekin
 ezkondu, diostazue? Ez dut nahi loturik
 nire emazteari; andra beti, Prisko, senarra
 baino beheratxoago; honela izan ezik
 ezin senar-emazteak geratu berdindurik.

BOEZIO

Nubibus atris
 Condita, nullum
 Fundere possunt
 Sidera lumen.
 Si mare volvens
 Turbidus auster
 Misceat aestum,
 Vitrea dudum
 Parque serenis
 Unda diebus,
 Mox resoluta
 Sordida caeno
 Visibus obstat:
 Quique vagatur
 Montibus altis
 Defluus amnis
 Saepe resistit
 Rupe soluti
 Obice saxi.
 Tu quoque si vis,
 Lumine claro
 Cernere verum,
 Tramite recto
 Carpere callem:
 Gaudia pelle.
 Pelle timorem.
 Spemque fugato,
 Nec dolor adsit.
 Nubila mens est,
 Vincitque fraenis,
 Haec ubi regnant.

(*Boëthius. De Cons. Phil. Lib. I. Met. VIII.*)

Hodei beltzetan
ezkutaturik
izarrek ezin
zabal argirik.

Haize zakarrak
ur irakina
nahas baleza,
itsas-uhina
lehen gardena,
egun barea
antzo, orain basaz
nahas arrea,

ezin ongi ikus.
Aitzetan zehar
doan erreka
hor lotu behar,

harkaitz jausia
bide-eragozpen.
Zerorrek ere
egia garden,
argitasunez,
ikusi gura,
okertu gabe
heldu mugara?

Lekurik ez poz
ta beldurrari,
agur uste on
eta minari.

Katez atxilo,
ilun gogoa,
laurok balute
nagusigoa.

●480. urtean jaio zen Erroman Anicius Manlius Severinus Boëthius, guraso kristauengandik. Bere garaikideen artean nabarmendu zen philosophian. Gaztetan kontsul izana, Albino senadorearen alde irteteagatik espetxeratu eta hila.

Platon eta Aristoteles-en lanak itzultzea zuen gogoan, baina zertxobait bakarrik egin ahal izan zuen bere heriotza baino lehen.

Kartzelan zegoela idatzi zuen bere "De consolatione philosophiae" ospetsua. Zorion beterik ez dago lurrean, "status omnium bonorum congregatione perfectus" delako zoriona.

525. urtean Pavia-n hila.

ALZINOO

Ἀλκίνοος

Azkenengo ontzi-ondoratzearen ondoren, Ulises, Kalipso uhartera bihurtzerakoan, feazioen uharteratu zenean, hango lurraldeko Alzinoo erregeak atotsi zuen. Homero-k Eskeria izenez ezagutarazten digu uharte hau. Beharbada, Korfu edo. Alzinoo-k Posidon-en ilobatzat zuen burua. Bere aita Nausitoo. Alzinoo-k bost seme zituen eta alaba bat, Nausika a. Beronek atotsi zuen Ulises ibaiaren ondoan. Alzinoo-ren emazteak, aldi berean loba zenak, Arete zuen izena (grekoz "Esan-ezina"). Jauregian bizi zen, senar eta seme-alabekin, ohorez eta adeieiz; Alzinoo eta Arete herri osoak maite ditu; atzerritarak ongi hartzen dakite, batez ere ontzia urpean galdu dutenak, haien zori latza gozatu beharrez. Jauregiaren inguruan, baratzean, urte osoan zehar, etengabe guztitariko fruituak heltzen dira. Ulises adoretu ondoren, eta oturuntza batetan haren gorabeherak luze entzun ondoren, Alzinoo-k itsasontzi bat ematen dio Itaka-ra itzultzeko, ez bait dago Korfu-tik urruti, eta hainbat opari eta bezuza eskaintzen dio.

"Argonautiketan" Medea-k eta Argonautek, itzul-bidaiari Alzinoo-ren lurrean geldialdi bat egiten dute eta haren gortean Eetes-en mandatari-talde bat arkitzen dute, Medea aitaren gana eramateko hara bidalia. Alzinoo jartzen dute talde bien arte-

ko epaile eta Medea aitarengana berriro eramatea erabakitzen du, oraindik birjina bada; bestela, Jason-ekin geratu behar dela. Erabaki honen arauera, Arete-k gazte biak ezkontarazten ditu, Medea Kolkide-n itxaroten zion zigorretik askatuz.

Erregearengana aurkezteko beldurrez, Kolkidetarrak Korfu-n geratu ziren, eta Argonautek bideari ekin zioten; anartean, Arete-k ezkonberri gazteei opariak eskaini zizkien.



Ἄλκίνοος δὲ τότε ἦρχε, θεῶν ἄπο μήδεα εἰδώς.
τοῦ μὲν ἔβη πρὸς δῶμα θεᾶ γλαυκῶπις Ἀθήνη,
νόστον Ὀδυσσῆι μεγαλήτορι μητιώσα,
βῆ δ' ἴμεν ἐς θάλαμον πολυδαίδαλον, φῆ ἔνι κούρη
κοιμᾶτ' ἀθανάτησι φυὴν καὶ εἶδος ὁμοίη.
Ναυσικάα, θυγάτηρ μεγαλήτορος Ἀλκινόοιο.

12

ἄγ' ἐπὶ τρυνον πατέρα κλυτὸν ἦδ' ὄπι πρὸ
ἡμιόνους καὶ ἄμαξαν ἐφοπλίσειαι, ἣ κεν ἄγῃσι
ζῶστρά τε καὶ πέπλους καὶ ῥήγεα σιγαλόεντα·
καὶ δὲ σοὶ ᾧδ' αὐτῆ πολὺ κάλλιον ἢ ἐ πόδεσσιν
ἔρχεσθαι· πολλὸν γάρ ἀπὸ πλυνοὶ εἰσι πόληος.

36

NAY. — Πάππα φίλ', οὐκ ἂν δὴ μοι ἐφοπλίσειαις ἀπήνην 57
ὕψηλὴν εὐκυκλον, ἵνα κ(α)τὰ εἶματ' ἄγωμαι
ἐς ποταμὸν πλυνέουσα, τὰ μοι βερυπωμένα κεῖται;

ODY. — ὦ μοι ἐγὼ, τέων αὐτε βροτῶν ἐς γαῖαν ἰκάνω;
ὥς τέ με κουράων ἀμφήλυθε θήλυς αὐτή· 119
ἀλλ' ἄγ' ἐγὼν αὐτὸς πειρήσομαι ἠδὲ ἴδωμαι.

ODY. — Γουνοῦμαι σε, ἄνασσα· θεὸς νύ τις ἢ βροτὸς ἔσαι; 149
εἰ μὲν τις θεὸς ἔσαι, τοὶ οὐρανὸν εὐρὺν ἔχουσιν,
Ἄρτεμιδί σέ (γ') ἐγὼ γε, Διὸς κούρη μέγαλοιο,

(Société d'Édition, "Les Belles Lettres")

Paris, 1924

Alkinoo zan errege: jainkoak eurak argituta artzen zitun onek aolkuak; onen jauregira zuzendu ebazan Atene'k, ontz-begidun jainkosak, bere urratsak, Odis biotz aundiaren itzulia gogotan ebala. Alkinoo gurenaren alaba, berezkoz ta edertasunez illezkorren pareko, ots, Nausikaa lo egoan etzangu ontzez landura sartu zan' Atene;

Tira, csaiozu zeure aita argiari, egun-antzea urratu baiño len, prest euki dagiezala mandoak eta zeure itoltzak, txabusi-nak eta estalgi eder ikusgarriak eroango dozuzan burdia, agindu dagiala. Zcuretzat be, oiñez baiño oba da onela joatea, uritik urrin samar aurkitzen dira ba garbitegiak.

Nausikaa.—Aita laztan! Ez zeuskit gertatuko burdi andi bat, txirrinka sendoduna, bertan eroan dagidazan erre kara, garbitzeko, loi daukadazan jantzi bikaiñak?

Odis.—Ai, ene! Zclako gizasmeak hizi ete dira eldu nazan lurralde ontan? Zakarrak ete dira, basatiak eta biotz-gabeak, ala arrotz-adeitsuak eta jainkoen bildur diranak?

Odis.—Erreguz nagokizu, oi erregin, jainkosa naiz ilkorra zareala! Zeru zabala daukien jainkotasunetatik bat ba' zara, Artemis, Zeus gurenaren alabaren kideko aurkitzen zaitut, zeure berezkoz eta anditasunez;

(Aita Onaindia-ren itzulpena)

"Homero-Odisea"; Bilbo, 1985

Quid dignum stolidis mentibus imprecer?

Opes, honores ambient

Et cum falsa gravi mole parayerint,

Tum vera cognoscant bona.

(Boëthius. De Cons. Phil. Lib. III. Met. VIII).

Ganorabako buruei duinik

zer eskatu behar diet?

Aberaskien, ohoren bila

ibiliz bezate laket.

Ezertarako ez diren gauza

ainitz metatu ondoren,

aldiz, orduan jakin bezate

egiazko onak zein diren.

Qui cupis esse bonus et vis dignoscere verum,
 ut mortis socium, sic mordax effuge vinum.
 Nulla febris hominum maior quam viteus humor
 immodice sumptus: vincit lethale venenum,
 sontior est igni, viroso sontior angue. .5
 Quantum vina nocent non tantum vipera laedit.
 Inde tremor membris, inde est oblivio mentis,
 et gressus poplite nutans et visio fallax.
 Surdescunt aures, balbuscit denique lingua,
 perdens eloquium, profundit semilatratum. 10
 Dic mihi dic, ebrie, vivisne an morte gravaris?
 Pallidus ecce iaces et nunc sine mente quiescis.
 Aegra quies oculos lethali pondere clausit;
 non bona, non mala, non dura, non mollia sentis.
 Hoc tantum distas a fati sorte sepulto, 15
 quod tenuis miseros subpungit anhelitus artus.

EUGENIO SANTUA

Ona izan gura baduzu eta egia ikusi,
 ardo minkatza alde bat utz, herioa bailitzan.
 Mahats-mama baino sukar handiagorik ez du
 gizonak, neurrigabe; eden hilgarria benetan.

Sua, suge pozoitsua baino kalteginago.
 Ziraunak ez du ardoak bezanbat kalte egiten:
 hortik gorputza ikaraz eta burua ahanzkor,
 belaunak makal ibiltzen, ikusmena gitxitzen.

Belarriak gor, mihia, aldiz, totelka ezin
 mintza zuzen, baizik eta erdi zaunkaka legez.
 Mozkorti, bizirik ala heriopean zabiltz?
 Zurbil zaude; dagoneko buruan argirik ez.

Gesoak begiak hertsi dizkizu pisu larriz;
 on-txarrak, gogor-bigunak bereizteko gauzeza.
 Patuak lurpetuaren aldean hau duzu zuk:
 Soin gaixo hortan oraindak zirika arnas-eskasa.

ERARIYAREN BERTUTEAK
(12-IX-1864, Donostia)

2/ Nik zu nor ziñan ez nekin
eta gogoz nizun ekin,
fiyaturikan zurekin;
istante batez egin zenduben
nai zenubena nerekin,
biyok giñan alkarrekin,
kontubak ziran gurekin,
ondo det nor zeran jakin.

3/ Batek lezake espero,
ondotxo edan ezkeru,
jarriko dubela ero;
lotsagarri ta lotsarik gabe
ibilliko dala gero,
korajetsu eta bero,
non nai egiñaz aldero,
modu txarrean entero.

Ramon Artola:

"Sagardoaren Graziya"

Auspoa Liburutegia;

1. zenbakia;

Tolosa, 1961

4/ Indarra erariyak du
ezin litekena neurtu,
gizona lezake aurtu;
ustez tamañan bein eran eta
ninduben oso mozkortu,
itzegin ezin ta gortu,
bista zitzaidan laburtu,
gañera nuben min artu

● Hona moral-liburu arau-emaileak mozkorraz edo ordikeriaz zer dioen:

"...iuvat notare, copiosae potationis effectum immediatum esse malignam (venenosam) affectionem cerebri, ex qua relaxatio nervorum et sopor sensuum ac tandem amissio usus rationis sequitur..." (Noldin-Smith? Summa Theologiae Moralis-De principiis"; Herder 1945, 339. orrialdea)

"...gogora dezagun, ugari edanez gero behingoan agertzen direla ondorioak, burua gaizki (pozoindua) eta hortik nerbioen lasaitasuna, zentzunen sortasuna eta azkenik adimen-jabea ez izatea..."

KONPARAKETA

S. EUGENIO

R. ARTOLA

iuvat notare

copiosae potationis

effectum immediatum

malignam (venenosam) affectionem cerebri

relaxatio nervorum

sopor sensuum

amissio usus rationis

vis dignoscere venum

viteus humor/inmodice sumptus

ut montis socium...

vincit lethale venenum... monte gravaris...

nulla febris hominum maior...

inde tremor membris...

tenuis miseris subpungit anhelitus artus...

gressus poplite nutans et visio fallax./Sunderscunt aures,

dens eloquium, profundit semelatratum... Aegra quies oculos

lethali pondere clausit;/ non bona, non mala, non dura, non mollia sentis

oblivio mentis.../sine mente quiescis...

ondo det nor zeran jakin

eta gogoz nizun ekin...

ondotxo edan ezkeru...

ustez tamañan bein eran eta...

istante batez egin zenduben/

nai zenubena nerekin...

indarra erariyak du/ezin litekena neurtu...

modu txarrean entero...

gañera nuben min artu...

jarriko dubela ero...

gizona lezake aurtu...

non nai eginaz aldero...

itzegin ezin ta gortu/bista

zitzaidan laburtu...

lotsagarri ta lotsarik gabe

Dic philomela, velis cur noctem vincere cantu?
 -Ne noceat ovis vis inimica meis.
 Dix, age, num cantu poteris depellere pestem?
 -Aut possim aut nequam, me vigilare iuvat.

ovis: dat. plur., OVUM, I.

Urretxindorra, esan, zergatik
 gaua abestiz estaltzen
 ahalegindu behar larria?
 -Etsaiak nire kumeen
 artean txarrik zabal ez dezan.
 Kantuz kaltea urruntzen
 ahal izango duzu, ordea?
 -Bai-ezean poz ni, zaintzen.

URRETXINDORRA

68.-Nug. Plinius scribit(1), eam praesentibus hominibus diutius et accuratius cantare.

69.-Turd. Quid causae est?

70.-Nug. Ego tibi causam aperiā. Cuculus et Philomela eodem cantant tempore, Verno scilicet, ab Aprilī medio ad Majum exactum, aut eo circiter. Haec duae aves in contentionem venerunt de suavitate contentus. Quaesitus est iudex; et quia de sono erat certamen, aptissimus visus est ad eam cognitionem Asinus, qui praeter caeteros animantes, grandes habet auriculas. Asinus repudiata luscinia, cujus se harmoniam negaret intelligere, victoriam cuculo adjudicavit. Philomela ad hominem appellavit; quem ut videt, agit statim causam suam, canit diligenter; ut se illi approbet ad vindicandam injuriam ab Asino acceptam. (Luis Vives: "Exercitatio Linguae Latinae" Caput VIII)

68.-Nug. Plinio-k dioenez, gizonak aurean direlari k, luzarago eta ozenago kantatzen du.

69.-Turd. Eta zer dela eta?

70.-Nug. Esango dizut. Kukuak eta urretxindorrak sa soi batean dihardute kantuz, udaberrian, alegia, Aprilaren erditik maiatza amaitu arte, gitxi gorabehera. Txori biok eztabaidan hasi ziren, zeinek gozago abestu. Epailea behar, eta soinua zen auzitan e tahortaz eritzia emateko Astoa iruditu zitzaien egokiena, beste animalien aldean belarri handiak baititu. Astoak, urretxindorra gitxietsita, ez omen zuelako haren harmonia ulertzen, kukua atera zuen irabazle. Urretxindorrak gizonagana jo zuen; ikusia z batera arazoa azaltzen dio eta egokiro abesten du, bere ahalmena erakutsi beharrez, Astoagandik hartutako iraina deusezteko.

(1) Nat. Hist., lib. X, c. 29.

SULPICIUS VERULANUS

DE REGULIS URBANITATIS IN MENSA SERVANDIS

Privetur mensa qui spreverit haec documenta:
Nemo cibum capiat, donec benedictio fiat.

Dum manducatis,

vultus hilares habe
membris rectis sede
quid edendum, ne quaer
rixas, murmur fugi
ne scalpatis, cave
aliis partem tribu
mappam mundam tene
sal cultello capi
morsus non reiici
modicum, sed saepe bib
grates Christo refer

atis.

«De Moribus in mensa informandis»).

MAHAIAN GIZALEGEZ NOLA EGON

Aginduok bete ezik, mahaitik kanpora.

Bedeinkapena barik janik ez eskura.

Jan

bitarte

AN

arpegi alaia iz
jezar, gorputza zutik
ez bila zer behar den j
ez jardun barrre-berbet
ez ibil, gero, aztrak
besteei azpila irag
zikinik ez utz zapi
har gatza aiztoaren punt
ez bota duzuna aho
edan gitxika, sarrit
Kristori eskerrak em

AN

(neurritz hauek leondarrak deitzen dira; Paris-eko
Leon izeneko monje batek asmatu eta ugari ondu zi
tuelako)

74 HIPERBOLE: "Quod non fit quando aliquid quod erat obscurum vel dubium, causa et a ratione reddita exponitur: sed quando id quod apertum est vel augetur, vel extenuatur, nec tamen a tramite significandae veritatis erratur; quoniam sic verba rem quae indicatur excedunt, ut voluntas loquentis nec fallentis appareat, qui novit quousque credatur, a quo ultra quam credendum est vel minuitur loquendo aliquid, vel augetur. Hunc loquendi modum graeco nomine, non solum graecarum, vel etiam latinarum litterarum magistri hyperbolem vocant. Qui modus, sicut hoc loco, ita in nonnullis aliis divinis Litteris invenitur."

(In Joannis Evangelium Tractatus, CXXIV, 8)

Ez da horrelakorik gertatzen, ilun edo ezbaiko zen zerbait zergatikoz eta arrazoiez azaltzen denean. Bai, ordea, gauza ageria handitu edo gitxitu egiten denean, egiari zor zaiona okerretara aditu gabe. Zergatik? Agertu nahi den gaiaz gainetiko berbak gorabehera, oker aditzerik gabe mintzo denaren asmoa nabari delako. Berak bai bait daki noraino sinestu behar den, sinesgarri den mailatik gora edo behera zerbait aipatzen denean. Hitz egiteko modu hau, grekozko letren maisuek ez ezik, latinezkoenek ere bai hiperbole izendatzen dute. Eta mintza-molde hau idaztune hontan bezalaxe, Jaungoiko-idazki-en beste zenbait pasartetan ere agertzen da.

Hipérbole. Exageración que «atiende sólo a [en]carecer la grandeza del objeto, o en panegiris o en sátira» (Gracián): *por tûmulo todo el mundo, / por luto el cielo, por bellas / antorchas pon las estrellas, / y por llanto, el mar profundo* (Salinas); *érase un narietismo* (Quevedo).

(F. Lázaro Carreter: "Diccionario de Términos Filológicos"; Gredos, 1977, Madrid)

hipérbole

La *hipérbole* es una figura de retórica que consiste en poner de relieve una idea, mediante el empleo de una expresión que sobrepasa la realidad; ejemplo: un gigante por un hombre alto, un pigmeo por un hombre bajo.

(J. Dubois et al. beste: "Diccionario de Lingüística"; Alianza Diccionarios)

Hiperboles

hipérbole / hyperbole / hyperbole

Hiperbolea, ideia bat nabari eraztearren errealitatetik kanpo geratzen den → adierazpen bat erabiltzean datzan erretorika-figura da; adib.: gizon bat handia dela adierazteko *erraldoia* dela esatea.

(U.Z.E.I.; HIZKUNTZALARITZA/1 HIZTEGIA; Elkar, S.A. Donostia, 1982)

- Argi dago Carreter-ek (etimologiari lotuta) gehiegiz handitzeari bakarrik esaten dio hiperbole. Dubois-ek, aldiz, etimologiaren iturriko urak noraino hedatzen diren ikusi eta gehiegizko txikitzeari ere ezartzen dio izen hori.
- Euskarazkoak, berriz, etimologia gora-behera, fenomenoari begiratu eta handitzeari zein txikitzeari uzten dio atea zabalik hiperbole-izenaz egokitzeko. Horretan baterago doa Dubois-ekin Lázaro Carreter-ekin baino. Eta biak San Agustin-ekin. Grekoz hiperbole honelaxe da = ὑπερβολή

75 **HIZKIAK/HIZKERA** : "Nam litterae, a quibus ipsa grammatica nomen accepit, γράμματα enim Graeci litteras vocant, signa utique sunt sonorum ad articulatam vocem qua loquimur pertinentium".
(De doctrina christiana, lib. III, XXIX-40)

Hizkiak, hortixek hartua du granatikak berak izen a, grekoek hizkiei γράμματα esaten diete eta, mintzatzerakoan ateratzen dugun artikulaziozko ahotsari dagozkion hotsen ezagugarriak dira.

Grafema

grafema / graphème / grapheme

Grafema → izkribakera-sistema bateko elementu → abstraktu bat da, → alografo deituriko formen bidez zertzen dena, alografoen marraketa → sistemako beste elementuen menpean dagoelarik: grafema, hortaz, → letrari dagokio izkribakera alfabetikoan, alografoak majuskula, minuskula, kurtsiba etab. diren bitartean. → Fonemak mintzaira mintzatuan bezala, grafemak izkribakeran bigarren → artikulazioko unitateak dira; → morfema grafikoak dira lehen artikulazioko unitateak.

Grafia

grafia / graphie / spelling

→ Hitz edo → esakune baten irudikapen idatziari esaten zaio grafia. Hitz baten ortografia oro grafia da: horrela, *au hau*-ren ordez grafia okerra da, baina grafia hala ere. *Zaku* hitza → alfabeto fonetikoan [saku] bezala transkribatzen denean, hori ere grafia bat da.

(U.Z.E.I.; HIZKUNTZALARITZA/1 HIZTEGIA; Elkar, S.A.
Donostia, 1982)

(jarraitzeko)

MAIATZERAKO

○*○

Hymnus

Memento, rerum Cōditor,
Nostri quod olim cōporis,
Sacrata ab albo Virginitis
Nascendo, formam sumpseris.

Maria, Mater gratia,
Dulcis Parens clementia,
Tu nos ab hoste protege
Et mortis hora suscipe.

Jesu, tibi sit gloria,
Qui natus es de Virgine,
Cum Patre, et almo Spiritu,
In sempiterna saecula.

Amen.

*

Gogora, gauzen Egile,
behinola gure gorputz-
itxura hartu zenuen
Birjinarengandik sortuz.

Miren, graziaren Ama,
Ama gozo-errukitsu,
etsaiarengandik babes,
hil-orduan har gaitzazu.

Josu, Birjinak sortua,
aintza Zuri eta Aitari,
Gogo Gurenarekin bat,
mendez mende. Hala bedi.

EXCERPTA

13. zenbakia

1987-ekaina

gaiak

orrialdeak

Hesiodo-ren Teogonia.....313-315

Boezio.....316-318

P.Ioannis Fossae epitaphium.....319-320

Aevi Carolini poetae.....321-323

Definitiones, etymologiae, explica-
tiones, e Sancti Augustini script-
is depromptae.....324-328

De vita exemplarium
presbyterorum vasconum:(I)IBARGUTXI..329-332

Grezia-ko Mitologia
(barne-orrietako eranskina)

Latin-grekozko idazleen
itzulpen-ikerketa lanak

Jon Gotzon Etxebarria
Gernika